

EUSKAL IDAZLEAK

Sarrera

Aramaio, Arabako herria, esku batz Bizkaiari lotua eta besteaz Gipuzkoari, nortasun bereziko agertzen zaigu. Errepidez bidegurutzean eta mendiz ere Araba, Bizkaia eta Gipuzkoaren bilgunean, haranzko eta honanzko lurraldeen segida. Herrion artean berezko mugarik ez dela aldarrikatzen digun mugako herria. "Mugako" diot, gizonek ezarritako administrazio-mugak beti ere hortxe daudelako. Hiru herrialdeok, hura zeharkatzean, han utzi dute euren izaeraren zertxobait, edota haiek euren joanean honen nortasun puska bat daramate aldean. Erdigunean, baterako eta besterako bide-bidean dagoenaren patua da hori: harremana, erlazioa, kideko bihurtzea. Gehiegi esatea ote da hiru herrialdeon sintesia dela Aramaioaren nortasun berezi hori? Aramaioaren ezaugarri nagusietariko bat, hala ere, herri euskaldun izatea da. Arabako herri euskaldun ia bakarra. Arabaren euskalduntze bidean eredu ezin ahaztuzkoa.

Aramaio harana Arabako iparraldean dago, esan dugun bezala, Bizkaia eta Gipuzkoaren artean ziri baten antzera sartua. Bizkaiko jaurreriaren ardurapean egon zen 1489.era arte.

Anboto, Arangio, Albinagoia eta Urkiola mendiek hesi antzera barnean gordea. Menditsua dugu Aramaio eta malda artean han-hemen barreiatuak dauden auzoetan bizi dira aramaiotarrak. Etxaguen inguruko goialdetik edota Azkoagatik, begien eta izpiritua-
ren gozagarri, ikuspegi liluragarriak ikus daitezke. Udan Orixol eta beste mendi batzuek keinu erakargarria egiten digute, neguan goiak zuritzen direnean, eder izateari utzi gabe, baina ez da han giro izango. Auzo hauek elizateak dira eta bakoitzak bere parrokia, hilerri eta administrazio aldetik oinarrizko antolamendu autonomoa du. Aramaio harana eta udal-
lerria, beraz, bederatzi elizate hauekin osatua da: Untzilla, Uribarri, Ibarra, Azkoaga, Arexola, Barajuen, Gantzaga, Etxaguen eta Oleta. Guztien herriburu Ibarra da eta bertan dago haraneko udaletxea eta gainerako herri-zerbitzuen gune nagusia.

Gabirel Jauregiren mendeurrenak Aramaiora begira jarri gaitu. Aramaiori alde askotatik begira diezaiokegu, eta ikuspegi desberdinetatik ateratako irudia izango du irakurleak *Karmelen* ale berezi honetan. Niri dagokidanez, haran honetako euskal idazleak izango ditut aztergai neure lan xumean. Euskal idazleak esatean, ez naiz sartuko horretan noizbehinka izan ohi diren eztabaida eta auzien harian. Izan ere, noizbait euskal joera, gogo, sen edo izpiritua ikusi nahi izan dute batzuek erdara hutsez idatzi izan duten idazle euskotar batzuegan. Dena dela, euskal idazle, nire iritziz, euskaraz idatzi dutenak dira soilik eta haietan jarri dut muga. Beste aldetik, ez ditut gogoan obra literarioak egin dituztenak soilik, baita euskaraz edozein arlo landu dutenak ere, esaterako: zientzia, erlijioa, historia eta abar gaitzat dutenak.

Honela sailkatuko ditut idazleak:

1. XV. mendeko eresiak
2. Pedro Inazio Barrutia
3. Gabirel Jauregi
4. Iragan hurbileko idazleak
5. Gaur eguneko idazleak

1. XV. mendeko eresiak

XV. mendean Ahaide Nagusien artean izan ziren borroka latz haiek hainbat kanta epiko sortarazi zituzten bere garaian. Gertakari odoltsu haiek eraginda, sentimendu goriak, indartsuak eresi eta kanta bilakatu ziren, gehienetan, egilea nor zen ez dakigula herrian ahoz aho zabaltzen zirenak. Hauek, Luis Mitxelenak iradokitzen digunez, ugariak eta literatura epikoari dagokionez, interes handikoak izango ziren. Gorde diren apurren eduz, iritzi hori atera dezake edonork, baina denboraren tolesturetan galdu zaigun altxor handiagoaren hondakin edo puskak baizik ez dira tradizio zahar horretatik jasotakoak.

Euskal literaturaren historiaz ari diren libururik gehienek jaso dituzte kanta hauek, batzuek zertzelada gehiagoz, beste batzuek gutxiagoz. Baita Santi Onaindiaren *Milla Euskal-Olerki Eder* liburuak ere. Ni, zehatzena eta egokiena delakoan, Luis Mitxelenaren *Textos Arcaicos Vascos* obrari narraio batez ere.

Aramaiori dagozkionak bizpahiru dira: *Aramaioko kanta* edo *Pedro Abendañoren aeria* eta *Martin Bañez Artazubiagaren eresia* izenez iritsi zaizkigunak; Arrasate erre zuteneko kantan ere, irazezan baizik ez bada ere, aipatzen da Aramaio.

Pedro Abendañoren aeria

Frantzisko Mendietak *Quarta parte de los Annales de Vizcaya* liburuan (Donostia 1915, 188. orr.) dioenez, Pedro Abendañok bere ahaidearteko guztiak bildu zituen, Otxoa Santxez Ginea Bizkaiko nagusietariko baten lagun jarritz, eta Otxandion Butrongo Gomez Gonzalez jaunaren dorretxeak suntsitu ondoren, Aramaion sartu zen, han hogeit etxe erre, hauen artean Mendiolaren dorrea. Joanes Mendiola kanpotik zela egin zuen hori,

baina hau laster batean bertaraturik, ordurako suemaileak ihes joanak zirela ohartu zen eta haien atzetik abiatu zen mendeku-egarriz eta ganboar batzuk hil zituen, aipagarriena, Mendietak dioskunez, Gasto Apala.

Gertakari honetaz kanta hau da ahoz aho guganaino iritsi zaiguna:

*Yzarragati gora elcian joeala
Jaun Peru Abendañococ esala:
Oñetaco lurrau jauil(t) ycara,
Gorpuceco lau araguiooc berala.
Oi aldioneri albanegui empara,
Barriz enendorque Aramaioco contrara.
Mendiola, yl deustac Gasto Apala,
Bere lagunzat beste asco ditubala.*

Auñamendiren *Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco* hainbat zertzelada dakartza kanta hauei buruz eta zenbait iruzkin eta gogoeta egiten dizkigu. Pedro Abendañoren irudi mitikoaren ondoan, haren beste alderdia agertzen digutela bertso hauek diosku. Orpoz orpo zetorzkion etsaiei iheska, beste irtenbiderik ez eta, damuturik zen Pedro Abendañoren irudi gizatiarra.

Hau zati bat izan liteke adituen iritziz eta zeharkako estiloan hasten da, hots, Jaun Peru Abendañokoren ahotan jartzen dira ondoko hitzak: *Izarragati gora elcian joeala / Jaun Peru Abendañococ esala*. Eta ondoren etorriko da hark esana, hau da, *Oñetaco lurrau jauil(t) ycara, / Gorpuceco lau araguiooc berala(...)*. Zeharkako estilo hori adierazteko, dirudienez, garai hartan horrelako esapideak edo klitxeak erabili ohi ziren. 1408ko San Bizente Ferrer-en biko ahapaldian ere antz-antzekoa dator: *Fray Vicentec esala, / Fedea cina liçala*. Honela itzultzen dute gaztelaniara: “que Fray Vicente había dicho ser juramento la fe”.

Martin Bañez Artazubiagaren eresia

Garibaik dioenez, Arrasatetik Garagartzara bitartean hil zuten Martin Bañez Artazubiaga, Ibarreta bere baserri ondoan, 1464ko maiatzean. Otxoa Urrexola, Otxoa Umaran, Joan Hortiz Urrexola, Butroiko Fortunoren sasiko bat eta Diego Ameskarai izan ziren hilketa egin zutenak, Joan Alonso Muxika, Aramaioko jaun eta Muxika eta Butroiko etxeen jabearen aginduz. Joan Alonso Muxika hau Bizkai aldeko oñaztarren buruzagi zen, hildakoaren bando ganboatarraren etsaia. Garagartzan harekin bizi zen Joan Ibañez ere batera hil zuten, Joan Alonsoren aita Gomez Gonzalez Butronen heriotzaren mendekuz, Martin Bañezen bandoko ganboatarrek hil baitzuten hura Arrasateko gudu odoltsu hartan. 1448ko uztailan izan zen, Arrasaten, oñaz eta ganboatarren artean hainbat heriotza eragin zituen gudu hori, ganboatarrak garaile irtenik.

Santxa Otxoa Ozaeta andreak hileta handiak jo zituen, mende horretan ohi zenez, Martin Bañez bere senarraren heriotzagatik, bere eta bere seme-alaben bakardadeaga-

tik; eresi ugari kantatu zituen, gaur egun jendearen oroimenean bereziki hauek gorde direlarik:

*Oñetaco lurrau jabilt icara
Lau araguioc vere an verala,
Martin Bañes Ybarretan il dala
Artuco dot escu batean guecia,
Bestean çuci yraxegüa,
Erreco dot Aramayo guztia.*

Lehenengo hiru lerroetan zorigaitzeko heriotza horrek eragin zion sentimendu bizia adierazten du; eta gainerako hiruretan, eraileenganako mendeku-egarriz, haien menpeko Aramaio guztia erre eta kiskaltzeko zemaia.

Luis Mitxelenak, Garibairengandik jasotako testu eta kontaketa jaso ondoren, ohar-txo bat dakar: eresi honetako lehen bi lerroak eta Aramaioko kantan edo Pedro Abendaño-koren aerian datozenak, xehetasun txiki batzuk gorabehera, berdinak direla. Beraz, puska gutxi iritsi zaizkigulako nahiko ezezagun zaigun Erdi Aroko euskal epikan maiz erabilia zen formula izan behar du erreteriar jakintsuaren iritziz. Testua nahiko argia dela dio, baina idazkeraz ohartxo bat edo bi egiten ditu: *yraxegura* zuzendu egin behar dela, *yraxegüa* jarritz, eta ez *irazekia*, M. Lekuonak eta Urkixok nahi zuten bezala, hura baita bizkaierazko forma. Bigarren lerroko *verean verala* nahiko ulergaitzak izan daitezkeela dio. Guerrak *berau bezala* “como este mismo” jartzen du, baina Mitxelenaren ustez oker, *veralak* “de la misma manera” esan nahi baitu. Hortaz, labur bilduz, honela garbitzen du auzia: *lau araguioc vere an verala* “también las cuatro carnes (tiemblan) allí de la misma manera”.

Arrasate erre zuteneko kanta

Erdi Aroko gudu hauen unerik latzena, agian, Arrasate ganboatarrek inguratu eta erre zutenekoa izango zen. Ibarquen-Katxopinen kronikan jasotzen dira honen xehetasunak, baita bando batekoek eta bestekoek honi buruz ateratako kanten puskak ere. Butroi-ko jaunak, Oñaztarren aldeko buruzagiak, bere burua itxituran ikusi zuen hiri barruan, ganboatarrek inguraturik. Barrukoek irauin eta irauin egiten zutela eta, irtetera behartzeko, ganboatarrek su eman zioten hiriari. Itsu-itsuan, nondik edo handik irten behar eta, zelatan noiz agertuko zeuden etsaien esku hil ziren bera, bere seme Joanikote eta bere iloba Presebal, oñaztarren bandoko beste askorekin batera. Guk onaztarren aldeko kanta jarri dugu hemen soilik, hementxe agertzen baita Aramaioren aipamena. Ziur asko eranskin gisa gehitutako orrietan datoz kanta hauek eta lehenengo letrak falta dira edota ezin ulertzeko eran daude; horregatik Mitxelenak mako artean jartzen ditu:

*[G]aldidila Unçqueta ta Vergara,
[Ç]aldibarrec bere partea debala,
[Ar]amayo, suac erre açala,
[T]a sumi a[...]la Gurayarra,
Cerren ceuren jauna ezcencan empara.*

Laugarren lerroaren erdian den hutsunea honela osa daitekeela uste du Mitxelenak: *sumi açala* edo *sumi adila*. Bere jauna etsaien aurrean babestu ez zuten alderdikideei zuzenduriko kanta garratza dela dirudi.

2. Pedro Inazio Barrutia

XVII. mendearen hondarrean jaio zen idazle hau, erdi ahaztua izan ondoren, miretsia eta goraiatua izan da azken aldian, batez ere 1982. urtean haren jaiotzako hirugarren mendeurrena zela eta, aramaioko idazlearen bizitza eta lana aztertuz, argitarapen trinko bat burutu zenez gero. Arabako Foru Aldundiaren babespean argitaratu zen obra honetan, lau idazle hauek agertzen dira egile: Joseba Andoni Lakarra, Jon Kortazar, Joan Mari Lekuona eta Jose Mari Vélez de Mendizábal, atarikoak E. Knörr-ena izanik. Aurretik Gabriel Arestik, haren lanari zeharo ederretsita, ahaleginak egin zituen teatrogile hura euskaldungoaren plazara behin betiko ateratzen. Azkuek egin zuen lehen argitaraldiaren ondoren, berau izan zen bigarren eta hirugarrenak prestatu zituena. Bigarren argitaraldia 1960an Euskaltzaindiaren *Euskera* agerkarian eta hirugarrena 1965eko *Auspoa* bilduman, euskal antzerki zaharrak agertzen zituzten zenbaki batean.

Baina Barrutiaren ikertzaileentzat iturririk garbiena eta fidagarriena, Arabako Foru Aldundiaren babespean argitaratu zen aipaturiko obra hori baino geroxeago, 1983.ean, Latxagak Tolosan Lopez-Mendizabal argitaletxean argitara emandakoa da, ezbairik gabe. Honek, ustekabea, aramaioar idazlearen eskuizkribu originala eskuratu ahal izan zuen, eta hartaz tentuz eta zuhurki baliatuz, irakurleari biderik ziurrena erakusten dio. Barrutiaren bizitza eta lanaren harian, goian aipatzen direnez gain, beste izen batzuk ere aipatu behar genituzke, eta lehen-lehenik eta goi-goian Juan Carlos Guerra, orain arteko argitarapen guztien iturri izan dena, eta gero R.M. Azkue, Barrutiaren lehenengo argitaratzailea. Mitxelenak, Onaindiak, Villasantek..., labur bada ere, lekutxo bat eskaintzen diote literaturaren historian. Dena dela, bere betiko estilo zorrotzean, Lino Akesolo da idazle honen inguruan nori berea ematen jakin duena. Latxagak (Jose Maria San Sebastian) egindako argitarapena goraiatzen du guztien gainerik.

Bizitzako zertzeladak

Haren bizitzaz ez dakigu gauza handirik. Jose Mari Velez Mendizabalek haren guraso eta aurretikoen hainbat zertzelada dakartza goian aipaturiko liburuan, baina hemen handi-handikakoa jarriko dugu soilik. Aramaioko Zalgo auzoan jaio zen 1682.eko uztailaren 3an. Gurasoak Pedro Alonso Barrutia eta Katalina Basagoitia. Gehienek ez dute beste xehetasunik agertzen, baina bai Jose Mari Velez Mendizabalek. Hona hitzez hitz honek dioena: "Edozein jaiotzak berez dakarren poza ez zen Basagoitiarrean osoa izan jaioberria sasikume baitzuten. Etxeko alaba, Katharina, Arrasateko Barrutia sendi boteretsuan neskame bezala ei ziharduela, haurdun geratu zen, umearen aita jauregiko ugazabaren seme bat, Pedro Alonso, zelarik". Aurreraxeago argiago uzten du Pedro Inazioren gurasoen xehetasun hori. Haren gurasoak hemeretzi urteko bi gazte omen ziren hura jaio zenean, "*siendo ambos solteros y libres de todo género de impedimentos para poderse cassar uno*

con otro". Eta honela dio Jose Mari Velez Mendizabalek: "Baina ez ziren ezkondu eta erabaki honen zioa, ene ustez, gizarte-mailako desberdintasunean bilatu behar da".

Haren gaztaroko urteez ez dakigu ezer, ezta ikasketak non egin zituen ere. Hau jakiteak, agian, argi handia egingo luke haren lana aztertzean aurkitu ohi diren hainbat ilununetan.

1710. urtean Arrasateko udaleko eskribau-lana eskuratzen du, 1753.era arte iraunik. Urte horretan, osasun eta adin kontuak aipaturik, lan hori utzi ahal izateko eskabidea egiten dio erregeri. Eskribau-lanaz gainera, Arrasateko aitonen semeen sindiko, udaleko administrari eta herriko Konzepzioko lekaikeen ordezkari ere bazen.

1713ko abenduaren 7an ezkontzen da Arrasateko Maria Luisa Humendia Arragarekin, zazpi seme-alaba izanik.

Arrasaten hainbat urtean izan zuen lanagatik, aitaren aldetiko jatorriagatik eta bere amaren etxean Aramaion igaro zuen denboragatik, ongi baino hobeki ezagutu ahal izan zuen orduko gizarte giroa, zaldun artekoa, herri xehearen artekoa nahiz baserrikoa, hori guztia bere *Gabonetako Ikuskizuna* lanean nabari-nabari denez.

1759ko urriaren 5ean hil zen eta Arrasateko Joan Bataiatzailearen elizan, San Martinen aldrearen aurrez aurre ehortzi zuten, bere emaztearen ondoan, honen familiaren hilobian. Hala utzi zuen agindurik bere ordeinuan.

Egindako lana

R.M. Azkuek atera zuen argitara 1897an, urte luzeetan ilunpean egon ondoren. Urte horretan hasi zen Azkue euskara hutsezko *Euskalzale* astekaria ateratzen. Aldizkari horretan bazen lekutxo bat literatura zaharreko lan batzuentzat. Hortxe agertu zen Juan Carlos Guerrak Azkueri igorri zion Gabonetako teatro-lantxoa. *Acto para la Nochebuena* gaztelaniazko izenburua du, eta Azkuek euskarazkoa eransten dio: "Gabon Gaberako Ikuskizuna", geroko beste batzuen argitarapenetan *Gabonetako Ikuskizuna* agertzen delarik. Guerrak Azkueri igorri ziona ez da Barrutiaren eskuizkribua. Hori etxean gorderik zuela adierazi izan zuen berak *Los Cantares Antiguos del Euskara* liburuan. Latxagak uste duenez, Guerra kanta zaharrak biltzen ari zen, guztiak batera argitara emateko asmatan, eta Migel Biguriren eskutik jasoko zuen Barrutiaren lana, honen senitarteko baitzen Migel Biguri hau. Gero, Guerrak Arrasateko onegintza-elkarte bati utzi omen zizkion bere ondasunak; hauek saldu egingo zituzten hainbat gauza eta horrela aldendu zen eskuzkribua ere arrastorik utzi gabe. Bide luzeak egina zen, dirudienez, eta halako batean Jose Maria San Sebastian jaunak, gure artean "Latxaga" izenez ezagunago denak, aurkitu zuen Euskal Herritik urrun.

Nolako lana da *Acto para la Nochebuena* delako hau? Azkuek lege handia zion aramaioar idazle zahar honi. Zenbaitek, lan osoan zehar darabiltzan erdarakada ugari eta nabarmenengatik, Azkuek arbuia egin zuela adierazi nahi izan digute eta arkaismo batzuk ikusi zizkiolako argitaratu zuela. Gabriel Arestik agertzen du iritzi hori inork baino suitsuago. Honek bere buruari ematen dio Barrutiaren balio handiak aurkitu izanaren

meritua. *Auspoa* bildumako 1965eko zenbakian, *Teatro Zaarra* izenburupean, Pedro Barrutia, Sor Luisa eta Xabier Muniberen teatro-lanak argitaratzen ditu G. Arestik. Barrutiari buruz hauxe dio: “Azkuek *Euskalzale* errebistan (1897) argitaratu bazuan ere, etzan ezaguna. Teatroaren aldetik, nik Bilboko euskaltzaleen biltzarrean aren gañean itzaldi bat eman nuan arte, etzuan inork estudiatu”. Aipaturiko hitzaldi horretan hona zer esaten digun: “Don Juan Carlos de Guerrak bialdu eutsanean, Mondragoetik, berak eskuz egingako kopia bat, orain Akademia onetako librutegian dagoana, ezeutsan meritu andirik topadu, eta ganera zantarra iduridu jakon, erderazko gauza asko eukalako”. Hari berean aurrera eginez, honako hau dio gure idazle bilbotarrak: “Azkuek ezaban literaturazko meriturik ikusi, bakarrik gauza bat, erderatik artuta egoan gauzea, erderazko titulua, erderaz esaten direan gauzak, eta erdera euskera arteko mordolloa. Gauza zar bat zalako publikau eban, eta arkaismo asko daukazalako, batez bere berboan, aditzean. Orduetik ona ezteutsa inok kasurik egin” (*Euskera*, 1959, 141. orr.).

Luis Mitxelena ere G. Arestik esandakoaz bat datorrela dirudi. Hona *Historia de la Literatura Vasca* liburuan haren hitzak: “(...), halló gracia ante los ojos de su editor, Azkue, por ciertas particularidades arcaicas de su lengua. No obstante, se creyó obligado a excusarse en una nota justificando la publicación en la antigüedad de la obra, a pesar de sus impurezas. Más adelante, no parece que los contados historiadores de la literatura vasca le hayan prestado la menor atención, a pesar de su evidente valor artístico”.

Lino Akesolok, ordea, argudio guztiok desegin eta Azkuek balio literarioengatik ere Barrutia gora handitan zuela adierazten digu. Hona Lino Akesolok gogoratzen dizkigun Azkueren aipamenak Barrutiaren lana goraiatuz: “Antzerkitxo irakurgarria”, “curiosa pieza de escena”, “linda pieza arrancada del pueblo”. *Morfología Vasca* liburuan, *Euskal-erriaren Yakintzan* eta beste lan batzuetan datozenak. Maiz eta ongi hitz egiten duela Azkuek Barrutiaz esango digu eta hartaz orainsu aritu izan direnek, Arestik esandakoa eta Luis Villasantek bere euskal literaturaren lehenengo edizioan esandakoa errepikatu baizik ez dutela egiten, Luis Villasantek bigarren edizioan zuzendutakoen konturik egin gabe. Aresti bera, azken aldera, bere iritzietan atzera egiten edo hasi zela diosku Lino Akesolok, baina beste asko aurrerago joan direla.

Lanaren balio aldetik ez dago, gaur egun, zalantzarik. Bai, Barrutiak “erdara handia du” (Udarregi bertsolariagatik esan omen zuen hori norbaitek gauza handitzat). Gure garaian “erdara handia” izatea, ezer izatekotan akatsa litzateke, baina hori gorabehera, Barrutiaren lana maila handikotzat jotzen dute guztiek aho batez. Latxaga jaunak, euskara mordoiloaren etsai handia dirudien arren, biziki goraiatzen du aramaioarraren lana. Orain, Azkueren iritzia jakin ondoren, eta luzeegi jo ez dezadan, Mitxelena eta Arestirenak aipatuko ditut: Luis Mitxelenak hitz hauetan biltzen du hartaz duen iritzia: “(...) un auto breve y sencillo en torno al nacimiento de Jesús, que no está muy lejos de ser una de las mejores piezas del teatro vasco, y sin duda lo es en su género”.

G. Arestik hitz hauekin adierazten digu bere iritzia: “Neuretzako komedia onek literaturazko balio andia dauko. Neuretzako ezta euskeraz eskribidu gauza baliosoagorik. Bere bertsoetako dotoretasuna, bere entramako edertasuna, bere *dramatis personae*,

Gabonak ikusten direan maitegarritasuna, onek gustuok emoten deutsez, nire iritzian, merezimentu andiak, esateko eztagoala euskeraz gauza fiñagorik eskribiduta”.

Hasieran aipaturiko liburuan, hots, Arabako Foru Aldundiaren babespean egindako argitarapenean, hor du irakurleak, nahi izanez gero, Jon Kortazarren kritika luze eta sakona. Honen ondoan, Joan Mari Lekuonaren idazlan interesgarria dator, Barrutiaren metrika aztertuz.

Barrutiaren lanari alde askotatik begiratzen diote aipaturiko bi argitarapen trinko hauetan. Latxaga idazleak gaiaren muina miatzen du; bera teologo eta antropologo izanik, ikuspegi horietatik ikertzen du batez ere, baina baita hizkuntza aldetik ere, antzerkiko hitz eta adizki guztien zerrenda ematen digularik. Barre eragiteko sartu ohi dituen erdarakadak alde batera utzirik, herri-euskara jatorra darabilela Barrutiak; hori da Latxaga jaunak ateratzen duen ondorioa.

Lino Akesolok dakarren gauza bitxi bat aipatuz amaituko dut: Azkue eta Guerra izan zirela Barrutiaren lana aztertu zuten lehenengoak esan dugu, baina hauen ondorik, eta G. Aresti Jaunari aurrea harturik, bada hirugarren bat: Abeletxe, Bizkaiko idazlea. Abeletxek Barrutiaren antzerkia irakurri, kopiatu, erdarazko puskak euskarara itzuli, erdarakadak kendu eta sariketa batera bidali zuen, eta saria irabazi. Saria eman ziotenak ere ez zirela Barrutia higuin zutenetarikoak izango dio Lino Akesolok...

3. Gabirel Jauregi Uribarren

Aramaioar honen jaiotzako mendeurrena dugunez gero, era zuzenean nahiz zeharka, berau dugu gure idazlanon giltzarri. Haren biografia eta lanak ez ditut aipatuko, horiek *Karmel* honetan luze eta sakon ikertuak baitira. Gabirel Jauregi euskal idazle den aldetik hurbilduko natsaio soilik. Lan literarioak ez arren, euskal literaturaren histori liburuetan badu lekutxo bat. Luis Mitxelenak izan ezik, guztiek aipatzen dute. Jakina, horrelako liburuetan ez da erraz ideia edo iritzi berririk aurkitzea, gutxi baitira bere-bere-tik mintzo direnak. Elkarrekiko zorra nabari da esku artean izan ditudan autorerik gehienetan. Gure idazle honi dagokionean ere ez dut alde handirik aurkitu batzuen eta besteen artean. Aho batez aitortzen diote, garai hartan gainera, inork jorratu gabeko zientzi gai zailez aritu izana. Haren azalpen argi eta didaktikoez ere gehienak ohartu dira. Aramaioar honen berezko euskal sena eta herriko euskararen kutsu berezia azpimarratu dute, besteak beste, Mikel Zaratek eta Karmelo Etxenagusiak. Ia guztiek akats bakarra eta berbera egozten diote: hitz berriak asmatzen burua hausten alfer-alferrik aritu izana. Batzuegan tamal edo pena antzekoa nabari da hori adieraztean, berezko haren euskara ederra, azalpenetan zuen argitasuna eta liburuen argitarapen apaina lorrintzera baitelortzen. Hona aipamen eta iritzi batzuk:

“Euskera ederraren jabe agertzen jaku beti arabatar au, eta gai gatxak euskeraz erabili zituan: onetan be txalogarri da; zoritxarrez, bere aldiko seme izanik, orduko purismo kaltegarriari geiegi jarraituz, erderatiko jakintza-itzen orde euskerazko berba barriak asmetan alperreko lan asko egin eban; eta orrek asko illundu eta astundu dau Jauregi´ren liburuen euskera ederra” (K. Etxenagusia, in *Euskal Idazleen Lorategia*).

“Garbizale amorratua dogu Aita Jauregi. (...)”

Pisia eta Kimian, batez bere, erderatiko jakintza-berba teknikuen orde, `euskerazko´ berba barri asko asmatu ditu Aita Jauregik, aldi aretako garbizalekeriak eraginda. Eta, jakiña, orrek asko illundu ta astundu dau bere euskera argi ta ederra. Penagarria, benetan!

Karmengo Argian idatziriko artikuluetan ez da, orraitioño, orren garbizalea” (Mikel Zarate, in *Bizkaiko Euskal-Idazleak*).

“Su purismo lexical parece pasar todas las rayas. Aun los tecnicismos científicos están forjados por el autor con palabras completamente diferentes a las que son de uso universal en este dominio. (...) Huelga decir que la mayor parte de estas voces son de pura invención, elaboradas sirviéndose de procedimientos verdaderamente `químicos´. De todas formas, se ve en el autor empeño por lograr una exposición clara y didáctica. Pensamiento claro no se le puede negar”. (L. Villasante, in *Historia de la Literatura Vasca*).

“El autor no ha tenido precedentes que imitar ni copiar directa o indirectamente. Es por primera vez que se escribe en euskera sobre conocimientos científicos físico-químicos. No dispone de terminología ya aceptada ni siquiera propuesta por especialistas ni por la Academia. Jáuregui, con tesón y firmeza la establece él mismo extremando la medida al excluir en sus términos técnicos aquellos universales y comunes a todas las lenguas” (*Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco*).

Santi Onaindiak bere *Euskal Literaturan*, Luis Villasanteren iritzia aipatu ondoren, honi ihardetsi nahirik edo, hona zer dioen:

“Geitxo esatea ez al duzu? Olako gaietan, beti ere, lenengo aldiz lurra iraultzean batik bat, oso zaila da itzen auzia, A. Gabirel ala ere, etzebillen bide okerrez; ba-zeuzkan gaiñera gidari jatorrak. Eta, oro-ar, liburu biok ederki daudela esan bearrean gagoz. Dituen akats eta guzti, liburu argi, eder ta jakingarria da. Nik neuk -eta beste ainbatek- erderaz baiño naikoa errezaog ulertzen ditut gaiok bi idazti oietan dauden bezela” (*Euskal Literatura IV*, 341-342).

Yakintza aldizkarian 1935ean agertu zen kritika laburtxo bat. *Enciclopedia General Ilustrada* dakar bere Literaturako III. liburukian, 267. orrialdean, baita Santi Onaindiak ere euskarara itzulirik. Kritika honetan asko goraiatzuten dute Gabirel Jauregiren lana, garai hartako erdarazkoei ez ziela ezer zor adierazirik, eta hainbat aldetatik haiek baino hobetzat ere joz. Dena dela, egileari aholkuren bat ematekotan, jakintza unibertsaleko hitzak euskaraz ere onartzea izango litzatekeela.

Santi Onaindiak Gabirel Jauregiren argitaratu gabeko lan baten berri ematen digu. Gerra aurretixoan argitaratzeko prest omen zeukan. “Jakindia” izena jartzen du Aita Santik; ez dakigu gaztelaniazko “Ciencias Naturales” adierazteko zer izen jarriko zion egileak; “Izadi-iztia”, behar bada...

“Etzuen argitara eman, ta gaur ez dakigu zein zokotan datzan, betiko austua ezpada” (ibid.).

Batzuen eta besteen iritziak bildu ondoren, hauxe esan genezake hartaz: Gabirel Jauregi benetako bide-urratzaile eta aitzindari izan genuela. Ordura arte inork landu gabeko zientzi gaiak landu zituen gerra aurrean. Lan eskergaitza burutu zuen, inolako lagungarririk ez baitzuen. Ia ezerezetik, bere eskuz material osoa moldaturik, harriz harri eraiki zuen fisikaren eta kimikaren eraikina euskaraz. Ez zuen zientzi-hitza berriak asmatu beharrik, hizkuntza guztien ondare baitira hitz horietako asko, baina ez zuen aurrekorik inor bidea markatzen eta bere garaiko joera garbizaleegira makurtu zen.

Gabirel Jauregiren buruhausteei irribarretxoa egingo diete, agian, oraingo zientzilariek. Zorionez, hasiera zail haiek atzean gelditu dira, eta gaur egun zientzi gaietako liburuak euskaraz nonahi eskura daitezke; unibertsitatean ere eman ohi dira klaseak eta abar. Beraz, bidezko denez, aurrera goaz. Dena dela, zientziak euskaraz ematen dituzten irakasleek nolabait susmatuko dute haren lanaren meritua, orain zeharo gauditua egon arren. Gabirel Jauregi zientzilari eta euskaltzale handia izan genuen. Irakasle zen eta zientzietako gaiak irakasten zituen, baina garai hartan erdaraz ematen ziren gai hauek gure ikastetxeetan. Euskaldun taldetxo bati euskarazko klaseak ere bai, hauek eskatuta. Horregatik, fisika eta kimikako klaseak emateko ez zuen liburu hauek euskaraz idazteko nekea hartu beharrik, baina euskaltzale itzela genuen eta horrek eragingo zion maite zituen gai horiek euskaraz jartzera. Haren jaiotzako mendeurrenean ongi litzateke, euskaltzale eta zientzilariak bat eginik, omenalditxo bat egitea.

4. Iragan hurbileko idazleak

Angelo Jauregi Uribarren

Gabirelen anaia. Gehienentzat ezezaguna izango da. Karmeldarren artean, hala ere, merezi luke aipamenik langile handi eta ameslari honek. Bizitzako zertzeladak beste lan batean ditu irakurleak *Karmelen* ale honetan bertan. Santi Onaindiak behin eta berriro dakar honen izena. *Euskal Literaturan* lekutxo bat eskaintzen dio, eta *Oroi-txinpartak* liburuan eskerronez izendatzen du, euskarazko maisu izan baitzuen eta euskal letretara eragin zionetarikoa: “Neronek ere, bear bada, ura izan ezpalitz, ez nuen artuko euskal alorean artu nuen arloa: garaiz erreza da zugaitz gaztea artez jartzea, ez oster aia aise garai ori joana baldin bada” (*Euskal Literatura V*, 363. orr.).

Libururik ez digu utzi, baina han-hemen aldizkarietan idatzitakoak bilduz gero, liburu polita osatzeko adina emango lukeela diosku Santi Onaindiak. *Euzkadin*, *Karmen'go Argian* eta *Karmelen* idatzi zuen, “Aita Gotzon”, “Anjelo”, “Uribarri” izenordeak erabiliz.

Lan handia egin zuen gramatika eta batez ere aditzaren arloan. Berak lan hauek euskara irakasteko erabiltzen zituela dirudi, baina Santi Onaindiak uste duenez, aditza behintzat, argitaratzeko asmoa zuen. Gero, Ordena barruan kargu garrantzitsuak izan zituenez gero, hara eta hona asko ibili beharra izan zuen, bereziki Txilen eta Portugalen bizi izan zen, baina baita Kolonbian eta Perun ere. Horrela ez zuen abagunerik lortu

eskuizkributan dituen gramatika-lanak eta aditzen paradigmak txukun prestatu eta argitaratzeko.

Gramatikak “Euskal-iztia” du izena eta bi zatitan dago banatua: (1^o parte) Letras, Declinación, Composición. (2^o parte) Sintaxis vasca.

Aditz-paradigmak lau euskalkitan dakartza: bizkaieraz, gipuzkeraz, lapurteraz eta Zubereraz. Euskalki bakoitzean, zukakoak eta hikakoak agertzen dira. “Zuka” eta “Ika” jartzen du eskuizkribuan, baina hemengo zukakoak forma neutroak edo ohiko formak dira.

Eskuizkribu hauek, zoritxarrez, liburutegiko apalen batean itzaliko dira, bere garaian argitaratzeko zoririk izan ez zuten gainerako lanen antzera, baina besterik ezean, beude euskaltzaleon oroimenean gorde, langile aspergaitz haien omenez.

Leon Aranguren Astola

Aramaioko Oleta auzoan jaio zen 1906eko apirilaren 19an. Karmeldarra. Gerra ostean gorriak ikusi zituen, urte mordoak gartzelan eginik eta heriotz zigorraren epaia gainean zuela, gero barkatu bazioten ere.

Honek ere, Angelo Jauregik bezala, euskal gramatika eta atzizkiei buruzko lanak egin zituen. Markinan, Larrean, Altzon eta Kantabriako Soto Iruz-en bizi izan zen. Altzon eta Markinan bi aldiz. Hemen, Markinan, hil zen. Hiztun atsegina zen; bihotz onekoa, baina zakar samarra. Ez zuen ezer gordetzen. Esatekoak blasta-blasta esan ohi zituen aurrez aurre; horregatik maiz gertatu ohi zitzaion nahi zituenak esan eta nahi ez zituenak entzun beharra. Irakasle izan zen batez ere. Latina eta euskara oso ondo menderatzen zituen. Dotorea eta zehatza zen hitz egiten; une bakoitzean behar zen hitza erabiliko zuen. Zorro-tza zen ingurukoekin ere. Komunikabideetan eta bestelako solasaldietan euskalgaiztoz entzuteak bere onetik atera ohi zuen. Bizpahiru gauzatan minbera agertzen zen batez ere:

“Adiskide” eta “lagun” hitzak nahastea ez zuen onartzen inola ere. “Ez dakit etorriko den” esan beharrean, “ez dakit etorriko bada” entzun orduko, gora-goraka hasten zen. Areago oraindik “etorriko balitz” esan beharrean, “etorriko balitzake” entzunez gero. Berak ez zuen asko idatzi, baina bai ikasleak idaztera bultzatu. Eskuizkribu batzuk utzi zizkigun, goian aipaturiko gramatika eta atzizkiei buruzkoek gainera, elizan erabiltzeko deboziozko liburu mardul bat. Argitara eman nahi zuen, baina Kontzilio ondoren, gainditu samar gelditu da. Hau ere, Angelo Jauregiren lanak bezala, hor izango da bazterren batean ahazturik, lehengoek egin zuten ahaleginen lekuko.

Joan Ibabe Iriondo

Aramaioko Uribarrin jaio zen 1901eko martxoaren 27an. Frantziskotarra. Oliten apaiztu zen 1924an. Ondoren, Kubako komentueta igaro zituen hamalau urte. Handik Euskal Herrira itzuli eta Zarautzen eman zituen bi urte; geroago, Bermeon hamabi eta azkenez, Bilboko Iralabarrin urte mordoak.

Aldizkari askotan idatzi zuen, *Euzko-gogoan*, *Zeruko Argian* eta *Anaitasunan* batez ere. “I ta Itarra”, “Bilbao’ko Ibabe” eta antzeko izenordez sinatzen zituen bere lanak.

Jose Maria Azkarraga

Aramaion jaio zen 1914an. 1937ko abenduaren 16an Bilbon hil zuten. “Lurgorri” izenordeaz sinatzen zituen bere lanak. *Euzkadi* eta *Gudari* aldizkarietan idatzi zuen. Gehienbat gaztelaniaz idatzi ohi zuen, euskara ez baitzuen ongi menderatzen. Lagun izan zuen Augustin Zubikaraik esan didanez, noizbait berak itzulirik edo, lanen batzuk euskaraz argitaratu zituen. Beti euskara ikastekotan, baina ez omen zuen lortu. Beste aldetik gizon fina, leiala zela adierazi dit hur-hurreko lekuko honek.

5. Gaur eguneko idazleak

Pedro Pujana Agirregabiria

Aramaioko Oletan jaio zen 1915eko ekainaren 29an. Gasteizko Seminarioan egin zituen ikasketa guztiak eta bertan apaiztu 1944an. Eskoriatzan, Angiozarren, Morgan eta Arteagan burutu zuen bere apaiz lana. Gaur egun Begoñan bizi da. Euskarari maisu handietarikoa. Apaiz apal eta isil honek ez du jaso euskaltzaleengandik merezi lukeen ospe eta aipamenik.

Euskal sen berezia agertzen du bere idazlan eta ikerketetan. Idazkera argi eta gozoa, badaezpadako esapide arrotzik nekez itzuriko zaio.

Oletar honek, bere lanik handiena, bi arlo hauetan osatu duela esan genezake: Bizkaierazko aditzaren arloan eta itzulpen arloan. Bietan lan eskerga eta harrigarria burutu du. Bi liburu ditu aditzaren inguruan: bata *Euskal-Aditza (Bizkaiera) / Flexiones del Verbo Vasco Vizcaíno* eta bestea *Oletako Euskal Aditza*. Tamainuz ez dira liburu handiak, baina bai edukiz. Bizkaierazko aditzaren liburua egiteko R.M. Azkueren *Morfología vasca* eta Sebero Altuberen *Observaciones al tratado de Morfología vasca* goitik behera aztertu zituela nabari da. Beraz, liburu hau ongi oinarritua eta maisu haien aipamenez hornitua da. Hitzaurrean kezka agertzen digu egileak:

“Bai, bai! Aditza galtzen doakigu. Apurka-apurka zarpiltzen, ondatzen. Atzerakada au, barriz -nok ukatu lei?-, galera aundia izan euskerarentzat”. Aurreraxeago, bere lanaren mugak aipatzen dizkigu: “Zukako aditz-jokoak bakarrik daukazuz emen. Ikako berbe-tea be ederra ta aberatsa da. Bai orixe! Alan da guztiz be, era bietako aditz-jokoak aita-tzea lartxo zan niretzat. Egikizun orrek beste neurri bateko liburua eskatzen eustan, ots, zabalagoa, sakonagoa, korapillotsuagoa. Ta egia esan, orretarako ez dot nik gaitasunik, ez almenik. Gelditu bedi ni baiño ikasiago ta jakitunago danarentzat”.

Apaiz jator baten apaltasuna agertzen duten adierazpen hauek gorabehera, bigarren liburuan ongi erakusten du horretako gaitasuna: *Oletako Euskal Aditza* liburuan, Arabako auzo horretako aditza osorik biltzen du, bai zukakoa eta bai hikakoa. Horrez gainera,

Leintz haraneko, Angiozar haraneko, Zeanuriko eta Mungia aldeko hikako aditz-jokoak jasotzen ditu. Arabako Foru Aldundiaren babespean argitaratu zen. Liburu honen aldeko iritzirik argienetarikoa, aurkezpen gisa Endrike Knörr-ek hasieran jartzen dizkion lerroetan irakur genezake:

“Lan honen berri egileak eman zidan. Ikusi ahala, argitaratzeko bidea prestatu behar zitzaiola pentsatu nuen, lana bikaina bait zen”.

Euskerazaintzak argitaratzen duen izen bereko aldizkariaren XXX. zenbakian, bizkaierazko aditzaren beste lan sakon bat idatzi du, “Bizkaierazko aditza atzo eta gaur” izenburuaz. Mendeetan zehar bizkaierazko aditzak izan duen aldaketa erakusten digu. Gehienbat erdararen eraginez, gure aditzak jasan dituen galerak agertzen dira. Etorkizuna ilun ikusten du alde horretatik, herriko euskaran zantzu txarrak somatzen baititu. NOR-NORK adizkien ordez NOR-NORI-NORK erakoak dabilta askoren ahotan. Irakaskuntzak eta idazleek NOR-NORK adizkiei eutsi eta eutsi egin arren, herria beti izan ohi dela garaile diosku.

Bizkaiko Foruaren itzulpena lan ikaragarria izango zela ez dago esan beharrik. Dionisio Borobioren sakramentuei buruzko lan batzuk ere itzultzen dizkigu.

Karmel aldizkarian hainbat lantxo idatzi ditu. Nik, guztiak zehaz-mehatz aipatzera jo gabe, “Kondaira apurak” eta “Oleta Aramaio ote da?” ditut gogoan. Lehenengoan, Morgako San Esteban ermitako erromatar aztarnak ikertzen ditu; bigarrena, berriz, Patxi Uribarrenek egindako beste lan baten erantzuna, edota behintzat handik haria harturik egina da.

Pedro Pujana, beste aldetik, benetako euskaltzalea eta pentsaeraz irekia dugu. Euskaraz ongi idatzia den guztia gogoz onartzen du, euskara batuan egina nahiz euskalkian egina izan.

Jose Mari Velez Mendizabal Azkarraga

Aramaion jaio zen 1949ko azaroaren 27an. Arrasaten bizi da. Entrepresetako Zientzietako lizentziatua. Euskaldunberria. Euskaltzain urgazlea. 1983.etik 1985.era Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailburuordea izan genuen. 1985.eko maiatzean Euskal Idazleen Elkarteko lehendakari izendatu zuten.

Idatzitako liburuen artean, batez ere Arrasate edo inguruko pertsona aipagarri batzuei buruzko saiakerak azpimarratuko nituzke; esaterako, *Sebero Altube*, 1979 (164 orr.); *Jokin Zaitegi*, 1981 (225 orr.); *Pedro I. Barrutia* (elkarlanean), 1983 (240 orr.); *Lainoepen kantari*, 1984 (saiakera, 293 orr.); *Zeu zara, Carmen*, 1984 (Narrazioa, 76 orr.).

Hainbat egunkari eta aldizkaritan idatzi ditu artikuluak; esaterako, *Deia*, *La Hoja del Lunes de San Sebastián*, *La Voz de Euzkadi*, *Zeruko Argia*, *Gasteiz*, *Ganboa*, *Estibaliz*, *Habe* eta azken aldi honetan *Euskaldunon Egunkarian*; 1991.eko ekainean agertu zen

Hegats literatur aldizkariaren 4. zenbakian *Jokin Zaitegi: Zertzelada batzu* artikulua idatzi zuen.

Lan batzuk "Mendiaga" izenordez sinatzen ditu. Idazle oparoa da; 1983 eta 1984 inguruan benetan emankor ageri zaigu.

Patxi Uribarren Leturiaga

Aramaioko Etxaguen auzoan jaio zen 1942ko urriaren 31n. Karmeldarra. 1969an teologiako lizentziatura lortu zuen eta 1974an Linguistikakoa, biak Deustuko Unibertsitatean. Bere tesina Aramaioko toponimiaz burutu zuen. 1965.etik 1968.era bitartean "Gogoz", karmeldar gazteen aldizkaria sortzen du beste batzuekin batera, haren zuzendaritza bere gain hartuz. 1976.etik 1983.era bitartean Bilboko Magisteritza Eskolako irakasle. ICE-n, UEU-n, Bilboko "D" eta "B" mailetako ikastaroetako irakasle. Hainbat urtetan zehar aritu da Aramaioko udako ikastaroak prestatzen. 1983ko martxoan, Bizkaiko Foru Aldundian itzultzaile-postua lortzen du, lehiaketa publikoan. 1972.az gero, euskaltzain urgazle dugu, dialektologia, irakaskuntza eta oinarrizko euskararako batzordeetan esku harturik. Orain LEF (Lexiko Erizpideen Finkapena) batzordean esku hartzen du. 1983. urtean *Bostak bat* lantaldea sortzen da, helburu nagusizat hiztegi gintza duela. Talde horretan hasierarik dugu kide eta eragile. *Adorez* saileko hiztegiak argitaratu dituzte, orain arte ondorengo sei hauek: *sinonimoen hiztegia*, 1983 (210 orr.); *Euskararako Hiztegia*, 1986 (1000 orr.); *sinonimoen hiztegia antonimoduna*, 1988 (308 orr.); *Euskararako Hiztegia. Oinarrizkoa*, 1990 (640 orr.); *Eskola-Hiztegia*, 1991 (664 orr.); *Europa Hiztegia*, 1993 (1076 orr.).

Orain dela urte asko hasi zen aldizkarietan idazten; esaterako, idazlan batzuk idatzia da *Zeruko Argian* eta *Anaitasunan*; teologiako ikasle zela "Gogoz", karmeldar gazteen barruko aldizkarian idazten zuen. *Karmel* aldizkarian idazten ere aspaldi hasi zen, 1974an agertzen du bere lehen idazlana. Harrezkero, salbuespenak salbuespen, zenbaki guztietan idatzi izan du. Gainerako lan aipagarrien artean, 1983.ean, Piarres Lafitteren omenez, eta era berean, 1992.ean, Luis Villasanteren omenez askoren artean burututako liburueterako egin zituenak ditugu: Lafitteren omenaldikoan, *Euskal dialektologiaren atarian* izeneko lana idatzi zuen; Villasanterenean, berriz, *Eliz liturgia eta euskara batua*. Idazlan honetan, herrialde bakoitzeko euskalki eta herri-euskaratik abiatuak, euskara batu natural antzeko batera iristeko liturgi batzordean egin zen ahalegina azpimarratzen du. *Hegats* sortan ere badu idazlan bat edo beste; eta *Jakin* aldizkarian artikulua pare bat, Santi Onaindia eta Lino Akesolori buruz.

Literatura arloan ez da hain ezaguna Patxi Uribarren, baina hor ere, mundu hori eza-gutzeko baizik ez bada ere, sartu-irtentxo bat egin zuen, baita fruitu onik lortu ere. Haren curriculumean hala irakurtzen dut: prosako lehen saria Bizkaiko Lore Jokoetan, Zornotzan 1968an; poesiako lehen saria Iruñeko Lore Jokoetan, 1969an.

Baina Aramaioar honen lanetatik itzulpenak azpimarratuko nituzke, azken urteotan bereziki. Lan hori du ogibide ere. Egin dituen itzulpenen artean, hauek aipatuko nituzke, besteak beste: *Karmeldarrak Markinan*, 933 orrialdeko liburu mardula, Julen Urkizak

idatzia; Jon Gurutzekoren eta Inazio Loiolakoren mendeurreneko *Karmelen* zenbaki berezian eginiko itzulpenak; eta zenbaki berezi honetarako egin dituenak. Hauetaz gainera, Bizkaiko Foru Aldundiko itzultzaile den aldetik itzuli dituen liburuxkak eta abar.

Patxi Uribarrenen beste alderdi bat gogorarazi nahi nioke irakurleari: Euskalduntze/alfabetatze ekintzan erre ditu bere indarrik onenak. Hor Santutxuko giza inurritegi horretan euskaltzaletasunaren zuzia eraman duena bera izan dela esango nuke; inguru horretan euskaltzaletasuna ereiten ahalegin handiak egina da. Bere bizar zuri luzeaz Patxik, itxura aldetik ere, nortasun berezia du eta euskal kulturaren arima dela ezin ukatu.

Luis Baraiazarra Txertudi